



Villabonako Santio jaiak erdi partean dira, eguraldia lagun

EKITALDIAK ▶ Atzo haur parkea, joko garbi eta sagardo eta txekor dastaketak izan ziren protagonista

GAUR ▶ Gaur atsedena da egitarau ofizialean; Gaztetxeak ekitaldi alternatiboak prestatu ditu ▶ 4



Angelu eta Hazparne arteko joko garbi pilota partida atzo arratsaldean Villabonako Errebote plazan. IMANOL GARCIA

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶

Oporretako argazkiak prestatzen hasi

Irailean izango da HITZA lehiaketa ▶ 2

TOLOSA ▶

Musika Bandaren euskal doinuak

Etzi plaza Berrian, Gau Giro barruan ▶ 3

ALEGIA ▶

Larrañaga barkatzea eskatuko dute ▶ 6

- ▶ HITZA laguntzen duten harpidedunen artean **BETI ALAI jatetxean** 4 lagunentzako otordu eder bat zozketatuko dugu



TOLOSALDEA ▶ ERREPIDEAK

Segurtasun neurriak N-1ean

Tolosa eta Lasarte artean 12,2 km-ko langa metalikoak ezarriko dira

I. ETXEBESTE

Gipuzkoako Foru Aldundiak N-1 errepiderako segurtasun neurriak hartzea erabaki du berriki. Tolosa eta Lasarte arteko hainbat gunetan segurtasun langak jarriko ditu aurrerantzean. Hain zuzen ere, 12,2 kilometroko langa metalikoak ezarriko dituztela iragarri dute Gipuzkoako Foru Aldundiko arduradunek, era horretara, gidarien segurtasuna bermatu dela uste dutelako. N-1 erre-

pideko hainbat gunetan jarriko dituzte langa horiek —gidarientzat arrisku gehien dutenak, alegia—, eta, horretarako, lehenik eta behin orain arte ezarrita dauden 1,4 kilometro luzeko langak kenduko dituztela adierazi dute, ondoren, berriak jarri ahal izateko.

Lanak egingo dituzten errepide zati horietako batzutan segurtasun langak «egoera txarrean» direla jakinarazi dute Foru Aldundiko ordezkariak, eta eremu batzuetan lan-

ga zatiak osatu beharko dituzten bezala, beste batzuetan berriak jarri beharko dituztela diote. Ibilgailuen euspenaren gaineko sistema berriei jarriki erabaki du diputatuen kontseiluak segurtasun neurri horiek ezartzea.

Proiektu hori aurrera eramateko 726.803.20 euroko aurrekontua du Gipuzkoako Foru Aldundiak, eta segurtasun neurri berriak ezartzeko, gehienera ere sei hilabeteko epea dutela jakinarazi dute.



Langa metalikoak jarriko dituzte N-1 errepidean, Tolosa eta Andoain artean, segurtasuna indartzeko. Irudian, errepidean, oinezkoak eta autoak bi norabidetan Villabona parean. I. ETXEBESTE

GIZARTEA ▶

Argazkiak bidaltzeko unea, berriro

Irailetik aurrera jarriko du abian HITZAK oporretan ateratako argazkien lehiaketa; hasi prestatzen!

IRATXE ETXEBESTE

Ez du ematen hainbeste aste pasatu direnik, baina bai, halaxe da. Egundezente joan dira HITZAK oporretako argazki lehiaketako sariak banatu zituenetik, eta, hala, berriz ere iritsi da unea Tolosaldeko eta Leitzaldeko biztanleek oporretan batean eta bestean ateratako irudiek lehiaketa egiteko. Aste Santuko oporraldian ateratakoen ingurukoa zen aurrekoa, eta oraingoan udako argazkiekin osatu-

ta antolatuko du eskualdeko euskarazko egunkariak txapelketa. Ekainetik irailera bitarte, edozein egunetan eta edonon ateratako irudiak izango dira balekoak jokoan izango diren sariak eskuratzeko.

HITZAK zehazteke ditu oraindik lehiaketako sariak —irailaren hasieran iragarriko ditu, egunkariko orrialdeetan eta webgunean—, baina aurreko edizioan bezala, bikainak izango dira, ez dudarik izan. Partehartzailerik guztien artean HITZAK izendatutako epaimahaia iru-

di batzuk hautatuko ditu finalerdietarako, eta unehorretatik aurrera zuek, irakurleek, izango duzue aukera gehien atsegin duzuen aukeratzeko. Finalera iristen diren argazki guztiak egun berean argitaratuko dira egunkarian, hautaketa ahalik eta modu erosoenean egin dezazuen.

Sari nagusiak argazki lehiaketan parte hartu, eta finalean puntu gehienekin sailkatzen diren egileek eskuratuko badi-tuzte ere, argazki gogokoena aukeratzeko botoa ematen du-



Iazko lehiaketa irabazi zuen irudia da; Donostian aterea. JOSU GONZALEZ

tenek ere izango dute aukera, zozketa bidez, HITZAK prestatutako saria lortzeko. Adi, beraz, irailetik aurrera argazki lehiaketaren inguruan egunkarian agertuko diren albisteek, aukeraregarekin baituzue oporretan ateratako argazkien kontu-

ra sari ederren bat edo beste irabazteko.

Iraila baino lehen ez dira lehiaketarako argazkiak bidali behar, baina zoazten lekura zoaztela, ez ahaztu argazki kamara eramatea. Abisua, behintzat, emanda dago!

iragarki laburrak ▶

Pablo Gorosabel, 40
I. pisua - 7. bulegoa
20400 TOLOSA
Tel. eta Faxa: 943 65 55 87
mug.: 669 368 994

Abaltzisketa. Sei etxe abiki:

sukaldea, egongela, bainugela eta terrazarekin, lehen solairuan; hiru logela, batek bainua du, bainugela eta bi terraza bigarren solairuan; bi autorentzako garajea eta bokoa beheko solairuan.

Alkiza. Familia bakarreko etxea, eraikitako 300 m², 4.000 m²-ko lur-saila etxebizitzarekin eta beste 4.000 m², bi partzelatan.

Anoeta. Duplex etxebizitza estreinatzeko salgai. 4 logela, 2 bainugela, egongela, sukaldea, terraza eta garajea aukeran.

Asteasu. 1.050 m²-ko bi solairuko eta 250 m²-ko tartraplanta duen pabilioia salgai edo alokeran. Mota guztietako tresna eta hobekuntzekin

hornitua.

Beasain. 45 m² erabilgarriko apartamentua eta lokal komertziala salgai.

Berrobi. 50 m²-ko etxebizitza, salgai, planta baxuan. Berritua.

Berastegi. 100 m²-ko bi solairuko borda salgai, moldatu beharra, 75.000 m²-ko lur-saila, 35 eta 50 urteko laritz pinuarekin.

Donostia. Saguesen, 70 m²-ko duplexa salgai, berritua, igogailuarekin eta Groseko hondartzara ikuspegiekin.

Ibarra. 85 m²-ko etxebizitza salgai, kanpokaldera, bizitzera sartzeko, garajea aukeran.

Lasarte. Hirugarren solairuan, 65 m² erabilgarriko etxebizitza salgai

Oztaran kalean. Kanpoaldera.

Lizartza. Eraikuntza berrikoak, 350 m²-tik hasita, 14.000 m² pabilio salgai.

Tolosa. Iurre, 98 m²-ko etxebizitza, planta baxuan, igogailua, trasteleku eta garaje marrarekin.

Tolosa. Santa Klara kalean, 90 m² dituen etxebizitza berritua salgai.

Tolosa. Santa Klara kalean, 90 m² dituen etxebizitza berritua salgai.

Tolosa. Gernikako Arbolan, 155 m²-ko etxebizitza salgai, erabat kanpoaldera.

Tolosa. Gudari kalean, Samaniego kalearekin iskinea egiten duen 110 m²-ko etxebizitza salgai. Kanpoaldera eta, eguzkitsua. Igogailuarekin.

Berritzeko premia.

Tolosa. Belate pasealekua, 4. solairuko etxebizitza, 70 m²-koa. Kanpoaldera, igogailua eta trastelekuarekin.

Tolosa. Pablo Gorosabel, duplexa estreinatzeko.

Tolosa. Apattarrekian, duplex berritua, garajea eta lur-sailarekin.

Tolosa. Pablo Gorosabel, eraikuntza berriko apartamendua, 65 m² erabilgarri.

Tolosa. Zumalakarregi kalean hirugarren solairuan berritutako etxebizitza salgai.

Tolosa. Agintari kalean, berritutako apartamentua salgai. Bizitzera sartzeko prest.

Tolosa. Nafarroa etorbidean, 120 m²-ko etxebizitza berritua salgai.

GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Voith-Gorostidi eremuaz

Uztailaren 14ko TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAN EAJko alkateak eta bi zinegotzik, Gobernu Batzordearen izenean, Tolosa Bizirik herri ekimenak Voith-Gorostidi eremuaren kudeaketari buruz egindako salaketa larriei erantzun omen diete. Erantzunak, kasu honetan, ez du Tolosa Bizirik-en salaketa ezeztatzen edota gezurtatzen, alderantziz, gure susmorik txarrenak baieztatzen ditu. Edonola ere, salaketaren larritasuna salatutako gertakarien eta jokabideen larritasunaren arabera izan ohi da, eta gure salaketa oso larria da, bai. Salatutakoa oso larria baita.

Gure salaketa gertaera guztiz egiaztagarrietan oinarritzen da. Hauek dira:

-Voith-Gorostidi eremuko lurra dagoeneko bi eraikuntza enpresa handiek erosi dute.

-Beraz, lur horri salneurria

jarri zaio. Nabarmena den bezala, lurraren balioa bertan eraiki ahal izango diren etxebizitzak kopuruaren eta motaren arabera da.

-Udalean dagoen plangintza ofizial bakarra orain lau urte EHren gobernuak eskatutakoa da. Plangintza hura EAJ eta EA alderdiek Udaleko osoko bilkuran atzera bota zuten, eremuaren garapenak Tolosako hirigintza arloko errealitatearen «osoko ikuspegia» behar zuela argudiatuz. Hau da, arau subsidiarioen berrikuspenaren baitan garatu behar zela argudiatuz.

-Aipatu plangintzak 330 etxebizitza eraikuntza aurrikusten zuen, erdia babes ofizialekoak. Orain aste gutxi, EAren eledunek 500 etxebizitza eraikuntza hitz egin zuten. Eraikuntza enpresek, jada, 650 etxebizitza aipatu izan digute.

Ukaezinezko gertakari hauen aurrean, Tolosa Bizirik-eko ondorengo galderak luzatu nahi ditu:

-Udalak ez badu inolako

plangintzarik onartu, nola balioztatu da Voith-Gorostidi eremuko lurra?

-Tolosako hirigintza politika non diseinatzen da? Garbi dago ez dela udaletxean egiten. Eraikuntza enpresa handien bulegoetan, akaso?

-Orain lau urte eremuaren garapenak «osoko ikuspegia» merezi bazuen, arau subsidiarioen berrikuspena martxan dagoenean, zergatik garatu nahi da arau zaharren aldaketa puntual moduan?

-Zertarako antolatzen dira arau subsidiario berriei buruzko Herritarren Parte-hartze Jardunaldiak, Tolosak garatzeko duen eremu nagusia eztabaidatik kanpo uzten bada? Beste argazki huts bat? EAJko, EAKo eta EBko zinegotzietatik ez duzue jardunaldietan parte hartu! Horrela entzuten al da herritarren ahotsa?

Egia esateko, orain lau urte Euskal Herritarrok-en gobernuak irizpide teknikoetan, bizikaltateko irizpidetan oinarritutako prozesua jarri nahi izan

zuen martxan, herritar guztien onura bilatuz. Baina batzuek hori ez dute inoiz ulertuko!

EAJ eta EA alderdiek, denborak gezurtzat frogatu dituen argudioekin, atzera bota zuten plangintza hura. Inguruko bi eraikuntza enpresek lurra erosi arte itxaron dute, eta orain enpresa hoiek agindutako plangintza onartuko dute, etekina ahalik eta handiena izan dadin. Aurrerago ere izango da eraiki nahi duten etxebizitza kopuruari eta motari buruz hitz egiteko aukera, baina badakigu hektareako 200 etxebizitza baino gehiago direla, eta besteak guztien %20 soilik izango direla. Ba al dakite tolosarrek zenbaterainoko *pelotazo* den hori?

(Eta honetaz ari garela, Jokin, etxebizitza tasatua ez da legalki etxebizitza babestua).

Bitartean, EAJk, Gobernu Batzordearen izenean (?), herritar askorentzat oso larria den gai baten inguruan ipuinak kontatzeari ekin dio. Haien kudeaketari esker denok irabaziko du-

gula sinestarazi nahi digute. Eta alderantziz, beste behin ere, gutxi batzuek ahulenen lepotik, hau da, etxebizitza duina eskuratu ezin duten herritarren lepotik, aberastu nahi dute. Gutxi batzuen etekina guztion poltsikotik aterako baita. Eta aski da!

Bitartean, Tolosa Bizirik-eko zinegotziok, gure salaketan berrestez gain, herritarren informatzen jarraitzeko konpromisoa gure egiten dugu. Tolosarentzat hain garrantzitsua den gai honetan informazioa ez baitator behar lukeen tokitik, hots, udaletxetik.

Izan ere, Jokin Bildarrazen eta bere gobernuaren betebeharrak herritarren informatzea da, ez gure salaketengatik haserretzea. Ez urduritu. Zerk beldurtzen zaituzte? Herritarrek EAJk eragiketa honetatik onura ekonomikoa aterako duela sinestea?

ANTTON IZAGIRRE, BEGOÑA ALDALUR, HEKTOR ESPIN, IBAN ORTIZ
ETA AITOR IZTUETA ▶ TOLOSA BIZIRIK TALDEKO UDAL ORDEZKARIAK (TOLOSA)

GAU GIRO ▶

Euskal kantuen doinupean

Estreinakoz, euskal kantekin osatutako kontzertua eskainiko du Tolosako Musika Banda etzi, Plaza Berrian, Gau Giro-ren uztailako azken emanaldian

LEIRE MONTES

Kontzertu berezia ari da buru-belarri prestatzen Tolosako Musika Banda: euskal kantekin osatutako emanaldia. Horrelako saiorik eskainiko duen lehendabiziko aldia izango da. Orain arteko kontzertuetan beti jo izan dute euskal kantarik Tolosako musikariek, baina doinu herrikoiekin oso-osorik osatutako emanaldirik ez dute eskaini artean. Etzi ariko dira, estreinakoz, Plaza Berrian, 22:30ean hasita. Gau Giro-ren uztailako azken ekitaldia izango da.

Bost euskal pieza joko ditu Musika Banda: *Euskal Herriko kantak*, *Aires vascos 1 zebakia*, *Lepoan hartu eta segi aurrera*, *Jeiki jeiki*, *Launakua* eta *Ordizia*. Amaieran, urtero legez eta San Inazio bezpera izaki, *San Inazio martxa* interpretatuko dute.

Gau Giro-ko bestek

Tolosako Musika Bandaren kontzertua izango da Gau Giro 2005eko uztailako azken emanaldia. Baina abuzturako eta



Tolosako Musika Banda, San Joan eguneko prozesioan, Santa Maria parrokiaren aurrean. L. MONTES

irailerako ere era guztietako ekitaldiak antolatzen dituzte.

Abuztuaren 9an, asteartea, esaterako, *Los chicos del coro* filma eskainiko dute Amaro azoan, 22:30ean. Ez da izango zinema kalean egitasmoaren ekitaldi bakarra: hurrengo egunean, abuztuaren 10, asteazkena, *El penalti mas largo del mundo* filma izango da ikusgai, leku eta ordu berean.

Musika emanaldiek ere izan-

go dute beren lekua abuztuaren 26an, ostirala, sefardien musika entzuteko parada izango da herrian. Izan ere, Julia Leon baskariak kontzertua eskainiko du Plaza Berrian, 22:30ean.

Irailean, azkenik, Tolosa Sesio jazz saioa eskainiko dute Tolosako hiru musikari espezesuk. 2an, ostirala, izango da, 22:30ean, Fronton kafetegian. Herriko musikariren emanaldiak itxiko du Gau Giro 2005.

TELEFONOAK ▶

- Larrialdiak. ((112))**
- Osasuna.**
 - ▶ Alegialdea. Osasun zentroa: 653212
 - ▶ Anoeta-Alkiza-Hernaldea. Medikua: 65 23 39
 - ▶ Asteasu. Medikua: 692423
 - ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
 - ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
 - ▶ Ibarraldea. Osasun etxea: 672411
 - ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720
 - ▶ Leitzu. Osasun zentroa: 948 510800
 - ▶ Orendain. Medikua: 655595
 - ▶ Oresa. Medikua: 682228
 - ▶ Tolosa.
 - ▶ Anbulatorioa, larrialdiak: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaro zko dispen.: 672637
 - ▶ Asunzio klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
 - ▶ Zizurkil. Aiztondo zerbitzu: 693330
- Garraioak.**
 - ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzarar autobus.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leizta): 608 873016
- Besterik.**
 - ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurramendi egotza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

iragarki laburrak ▶

LANA
Sukaldaria. Asteburuetarako eta oporren ordezkapena egiteko sukaldaria behar da. Deitu 943 69 19 33.

SALGAI
U2ren kontzertua. U2ren kontzerturako sarrera salgai. 657 71 95 03.

AMASA-VILLABONA ▶ SANTIOAK

Eguraldia lagun, herriko jaiek ibilbide erdia egin dute

Santa Ana eguna ospatu zuten atzo ekitaldiz beteriko egitarauarekin

IMANOL GARCIA

Santio jaien baitan atzo izan zen Santa Ana eguna eta pixkanaka festak erdialdera iritsi dira. Eguraldia lagun, hainbat ekitaldi izan zituzten. Haurrek goiz eta arratsalde beraien-izat prestaturako parkean gozatzeko aukera izan zuten. Herriko plazan Hazparnekoek eta Angelukoek joko garbi partida jokatu zuten. Oso parekatua eta polita izan zen eta aspaldiko partez jende dezentze inguratu zen pilota ikuskizunera. Bien bitartean txekorra erre zuten Txerminen eta pintxoak sagardoaz lagunduta banatu zituzten. Bi mila pintxo inguru eta 800 botila sagardo kontsumitu zituzten atzoko egunean.

Gaur ez da izango egitarau ofizialik, baina Onddo gazte asanbladak zenbait ekitaldi antolatu ditu, tartean bazkaria Berdura plazan.

Oinkariren emanaldia

Festen egun nagusian aurkeztu zuten Oinkari dantza taldekoek beren *Oroituz* ikuskizuna. Olaederra kiroldegian herri guztia izan zen, emanaldia bera ikusteaz gain, azken 30 urteetan dantza taldetik igaro direnei omenaldia egiteko. Giroa beroa izan zen, bai txalok ematen duten berotasunagatik eta baita tenperatura altua zegoelako. Edu Murumendiaraz dantza zuzendariaren koreografiaren eta Xanet Arozenak zuzendutako musika taldearen arteko emaitza ederra eta berritzailea izan zen. Tradiziotik abiatuz, bai dantzan bai musikan berritasunek izan zuten beren tartea. Haur, gazte eta helduek dantzatu zituzten herrialdeetako dantzak eta tarte-

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Informazioa eskura.

Hitzaren webgunean eskualdeko informazioa izango duzu, bai azken ordukoak, bai paperezko edizioa. Horretaz gain, iritzi emateko aukera izango duzu eztabaidetan eta inkestetan. Eta ez galdu ekitaldirik agenda kontsultatuz.

EGITARAUA ▶

Onddo gazte asanbladak bere egitaraua antolatu du Santio jaietan eta bereziki gaur izango dira ekitaldiak, Gazteixaren egunean.

GAUR

Gazteixaren eguna.

10:00. Gosaria Gazteixean

11:00. Malabar tailerra gazteixean. Malabarrak egiten eta erabiltzen ikasteko.

13:00. Preso eta iheslariari omenaldia berdura plazan.

14:00. Bazkaria Berdura plazan. Ondoren bertsolariak.

17:00. Gazte jolasak. Ondoren poteoa.

23:00. Kontzertua: Izeba Pilarren Ilobak, Txakurrak eta Tuboskapi.

BIHAR

19:00. Bakarlarria gazteixean.

UZTAILAK 31, IGANDEA

20:00. Jone Bakarlarria Gazteixean.

ka Oinkariren ibilbidea erakusten zuten irudiak proiektatzen ziren.

Santio egunean ere antolatu zuten Zumbeltz elkarteak XXV. Santio Kros herrikoia. Jarraian sailkapena nola gelditu zen: benjaminetan, sailkapen orokorrean Sandra Mendez eta Aitor Veleda izan ziren aurreneko neska eta mutila; alebinetan, orokorrean Leire Rojas eta Kepa Izagirre izan ziren lehenak, eta herritarren aldetik, Sofian Rochi izan zen lehen mutila; infantiletan, orokorrean Jon Etxaide izan zen lehena, eta Raquel Mendez eta Jokin Otegi lehenengo herritarrak; kadeteetan, orokorrean Elena Xelas eta Eneko Garin izan ziren aurrenekoak, eta herritarren artean Unax Monfort; helduetan lehenengo emakumea Elena Huarte izan zen lehena (denbora onena berak egin zuen, 31') eta David Huebra lehen gizoneko; beteranoetan, 40 urtetik gora, Mari Carmen Garcia izan zen lehena emakumeetan eta Miguel Angel Encina gizonekoetan (berak egin zuen denbora onena, 24:58); gazteenari, 5 urteko Iñigo Amenabar, eta beteranoenari, 65 urteko Juan Jose Primoy, ere garaikurra eman zieten.



Besteak beste, Kaxarranka dantza eskaini zuten Oinkarikoek. J. SAIZAR



Hazparneko eta Angeluko jokalariek joko garbi partidan. I. GARCIA



Txekorra erretzen aritu zen lagun taldea. I. GARCIA

GUTUN@K ▶

Udalak lana ukatu digu

Badira urte batzuk, Amasa-Villabonako Udala herriko festetan hainbat lan egiteko langileak kontratatzen hasi zela. Azkeneko urteetan aipaturiko lanetan aritu garenok, aurten ere Udalera joan gara lanerako gure gogoazaltzera. Gure harridurarako erantzun hau jaso dugu: «Nahiz eta zuen lanarekin gustura egon, lan hori enpresa pribatu bati ematea erabaki dugu». Alkatesa andreari zergatia galdetutakotan, aitzaki merkeak besterik ez ditugu jaso bere ahotik.

Hau ikusirik, Udalak herritarren beharrak, nahiak... defendatzen dituela esaten jarraituko al du? Bestalde, pribatizazioen aldekoek lan aukerak ukatuz e.a., Amasa-Villabonan, gaur egun Udalean dauden politikari jestionatzaileek, zergatik ez dute besteentzako aplikatzen dutena beraien puestoeikiko aplikatzen? Euren lekuak, soldatak, e.a. gestio enpresa pribatuaren esku utziaz? Oposizioa baztertu, herritarrei lan aukerak ukatuz, e.a., amasa-billabonatarren alde lan egiteko daudela esaten jarraituko al dute? Ez duzue lotsarik, ezta duintasunik ere!

MANEX AZURMENDI (LANERAKO
PREST GAUDEN GAZTEEN
IZENEAN) ▶ AMASA-VILLABONA

ANOETA ▶

Interneten inguruko ikastaroa bihar KZgunean

ERREDAKZIOA

Anoetako KZgunean mikro-entrepresi (hamar langile baino gutxiago dituztenak) eta autonomoei zuzendutako ikastaroa emango da bihar. Bi ordu iraungo ditu ikastaroak, 18:00etatik 20:00etara. *Leialdu bezeroak sareko buletin elektronikoko erabiliz du* izena eta aurretik izena eman behar da parte hartzeko. Horretarako udaletxera deitu behar da eta Tererengatik galdetu.

Bestalde, Udaletik adierazi dutenez, abuztuaren, oporrak direla eta, KZgunea itxita izango da. Horrela, irailean irekiko ditu berriz ateak.

SAN BARTOLOME JAIAK ▶

EGITARAUA ▶ IBARRAKO SANBARTOLOMEAK

Datorren hilean ere jairik jai ibiltzeko aukera izango da eskualdeko herri askotan. Ibarren sanbartolomeak izango dituzte.

Abuztuak 21 (Igandea)

10:00. Euskadiko VIII. Piperraren Azoka, 14:00ak arte.
12:30. Euskal Herriko Piperraren I. Lehiaketa Gastronomikoa, Xepla elkarteak antolatuta.

Abuztuak 22 (Astelehena)

21:00. *Euskal presoak Euskal Herrira* leloarekin, herri afaria San Bartolome plazan.

Abuztuak 23 (Asteartea)

11:30. Ibarrrako Merkatarien Elkarrekin eskainitako hamaiketakoa, San Bartolome plazan.
11:45. Haur eta gaztekoen koadrilak plazan elkartuko dira
12:00. Jaien hasiera izango da suziriaren jaurtiketarekin. Ondoren erraldoi eta buruhandien irteera. Koadrilen kalejira txarangarekin eta Giroarte dultzaina taldearekin batera.
14:30. Haurren eta gaztekoen koadrilen bazkaria.
16:00. Karaokea San Bartolome plazan.
18:30. Haurrentzako apar jai, San Bartolome plazan.
19:00. San Bartolome bezperako salbea eta kanpaiak.
22:30. Danborrada nagusia Ori txarangak alaiturik, Danborrada Taldearen eskutik.
23:30. Trikiotz taldearen emanaldia San Bartolome plazan.

Abuztuak 24 (Asteazkena)

09:00. Diana, herriko trikitilari

eta bistularien doinuekin alaituta.
10:30. Meza nagusia eta Parrokiaren dorreko obra lanen inaugurazioa San Bartolome elizan.
11:30. Haurren danborrada Danborrada Taldearen eskutik, Koxkola txarangak alaiturik.
12:00. Piperrak eta tomateak San Bartolome plazan, herriko baratzearekin, Zubelzu Piperrak etxeak eta Piparra Kooperatibak eskaini eta zerbitzatua.

13:00. Emeterio Arrese XVII. Literatur Lehiaketaren eta San Bartolome bozeto lehiaketaren sari banaketa, San Bartolome plazan.
19:30. Kale-antzerkia: *Aterpea*, Trapu Zaharra taldearen eskutik.
20:00. Bertsolarien emanaldia: Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus eta Xabier Silveirarekin, Emeterio Arrese plazan.
22:30. Alurr dantza taldearen jaialdia Emeterio Arrese parkean. Eurria eginez gero, Belabieta kiroldegian.
00:00. Laiotz musika taldearen emanaldia, San Bartolome plazan.

Abuztuak 25 (Osteguna)

09:00. Diana herriko trikitilariaren eskutik.
11:00. Gorriti eta bere animaliak, Emeterio Arrese parkean.
11:30. Erretiratuentzako hamaiketakoa Bizi-Nahi elkartearen.
13:00. Herri kirolen erakustaldia, San Bartolome plazan.
16:00. Txiribitu astialdi taldearen eskutik haurrentzako

jokoak, Emeterio Arrese parkean.
18:30. Helduentzako Dantza-Solte Txapelketa, San Bartolome plazan. Aldez aurretik parte hartzeko gonbita jaso duten bikoteak arituko dira soilik.
19:30. Kabun talde kataluniarraren emanaldia herriko kaleetan zehar.
23:30. Irailerako 6 musika taldearen emanaldia izango da San Bartolome plazan goizalderarte.

Abuztuak 26 (Ostirala)

09:00. Diana, Giroarte dultzaina taldearen eskutik.
11:30. *Frantsesak Ibarrran* herri antzerki berria eskainiko dute herriko kale eta plazetan zehar Hauspoa kultur elkartearen eskutik.
14:30. Txekor jatea Uzturpe ikastolan, Sendi Ekintzaren eskutik.
16:30. Haurrentzat herri kirolak Zurgai taldearen eskutik, San Bartolome plazan.
19:30. Sokadantza San Bartolome plazan Hauspoaren eskutik.
20:00. Kabun talde kataluniarraren musika emanaldia herriko kaleetan zehar.
23:30. Imuntzo eta Beloki trikitilari taldearen emanaldia, San Bartolome plazan.

Abuztuak 27 (Larunbata)

09:00. Diana herriko trikitilariaren eskutik.
10:30. Haurrentzako III. Eskalada Txapelketa Belabieta kiroldegian, HaitzetanRaju mendi taldearen eskutik.
11:30. Toka eta bola txapelketa Emeterio Arrese parkean Ibarrrako kirol elkartearen esku.

11:30. Bat-bateko xake partidak Emeterio Arrese parkean, Xake elkartearen eskutik.
13:00. Sokatira taldekoen sokatira lehia, San Bartolome plazan.
15:00. III. Eskalada Txapelketa Belabieta kiroldegian, HaitzetanRaju mendi taldeak antolatuta.
17:00. Pilota partidak Belabieta pilotalekuan. Gazteak: Rompen eta Leunda, San Juan eta Legarretaren aurka. Amateurrak: Ariz eta Mintegia, Elurbe eta Baezen aurka.
19:30. Jotak Arbones Ahizpak taldearen eskutik, Emeterio Arrese parkean.
23:00. Real Azteca mariatxi taldearen emanaldia, Emeterio Arrese.
23:30. Trikitake musika taldearen emanaldia, San Bartolome.

Abuztuak 28 (Igandea)

09:00. Diana Giroarte dultzaina taldearen eskutik.
09:30. Gazteentzako txirindulari lasterketa, XXIV. San Bartolome Saria, Ibarrrako kirol elkartearen eskutik.
11:30. Koadrilak San Bartolome plazan elkartuko dira.
14:30. Koadrilen egunaren harira, koadrilen zikiri jatea Uzturpe ikastolan.
18:30. Perkusio taldearen kalejira.
00:00. Osasun etetik San Bartolome plazaraino piperra erretzeko prozesioa egingo da eta ondoren piperra erreko da plazan.
01:00. Patxi eta Konpania taldearen emanaldia, San Bartolome plazan.

AMEZKETA ▶

XVI. Joxean Tolosa Txapelketa aurrera

Ostirala, larunbata eta igandean izan ziren neurketak ohi bezala maila desberdinetan

N. LATABURU

XVI. Joxean Tolosa Pilota Txapelketa jardunaldi berria bizitu du pasatu den asteburuan. Neurketak aurrera doaz eta pilotariak dagoeneko gehiago ahalegintzen dira neurketa bakoitza irabazteko.

Hauk izan ziren emaitzak: ostiraleko neurketetan: kadeteak, NARBATE 18-Albisu 11; gazteak, IRAOLA 18-Zubi-llaga 3; gazteetan Urrutia 14-Legarreta 18 eta Zelaia 11-Pina 18; nagusiak, YUBERO 18-Tainta 6; gaueko emaitzak, berriz, kadeteetan, GARMENDIA 7-Sarasola 18; gazteetan, TELLERIA 18-Beloki 10; eta nagusia, Etxebeste 12-Artano 18.

Igandekoan ere beste hiru jokatu ziren. Gazteetan, SENERENA 18-Arkotxa 11 eta GARZIA 16-Azkune 18; nagusien mailan, MARTINEZ 8-Etxe-garaia 18.

AMEZKETA ▶

GI-2133 saihesbidea enkantera atera dute

ERREDAKZIOA

Diputatuen kontseiluak enkantera atera berri du Amezketa igaroko den GI-2133 saihesbidearen eraikuntza lanak. Proiektuak 800 metroko saihesbidearen eraikuntza aurreikusen du, Aralar paperfabrikara edo Abaltzisketara doazen autoak Amezketa erditik igaro beharra ekiditeko.

Hiru bidegurutze egingo dira proiektuaren harira, horietako bi T iturarekin. Hirugarrena, berriz, glorieta bat izango da, 20 metroko erraberdinetan.

Abuztua ere festaz blai

Abuztuan eskualdeko hainbat herritan izango dira festak; Ibarren sanbartolomeak ospatuko dituzte

NOELIA LATABURU

Uztailko jaiak azkenekotan sartu dira dagoeneko eta hamaika aukera izan da eskualdean azken aste hauetan: Alegia, Villabona, Asteasu, Belauntza, Leaburu... Guztietan udako festa giroa nagusitu da. Haatik, abuztua ez da makalagoa izango. Sanbartolomeak oraindik itxaron behar badute ere, Bartolome zaindari duten herritan dena prest dute.



Nagusien danborradakoek gogoz astitzen dituzte makilak Ibarren. HITZA

ALEGIA ▶ GIZARTEA

Larrañagaren barkamena eskatuko dute

Familia itxaropentsu agertu da; NBE-ra jotzeko asmoa dutela azaldu dute

IÑIGO TERRADILLOS

Espainiako Atzerri Arazoetako Ministerioak atzo agertu zuenez, Paco Larrañagari heriotz zigorra barkatzeko eskatuko dio Espainiako Gobernuak Filipinetako presidenteari. Hain zuzen ere, Migel Angel Moratino atzerri ministroak Alberto Romulo filipinarrarekin eta Larrañagaren amarekin hitz egin zuten herenegun, eta Espainiako Gobernuak barkamena lortzeko beharrezkoa den guztia egingo duela ohartarazi zien. Romulo, Filipinetako ministroak bestalde, kasu honek sortarazi duen ohiartzuna ezagutzen duela eta Espainiarekin harremana izaten jarraitu nahi duela argi utzi zuen izan zuten hartu-emanean.

Horrela, Javier Viadak, Larrañagaren abokatuak, albistearen berri izan zuenean justiziarengan fidatzen zela adierazi zuen, eta gero eta presio politiko handiagoa egin zigorra kentzeko aukera gehiago egongo zirela uste zuela azaldu zuen. Hala ere, zer egin eta nola egin aztertzen ari direla adierazi zuen; izan ere, heriotz zigorra kentzea ez da beraientzat helburua, eta abokatuak azaldu bezala barkamena eskatuz

Paco Larrañaga kartzelatik ateratzea lortu nahi da.

Sendia itxaropentsu

Paco Larrañaga kartzelatik kanpo ikusteko duten itxaropena handituz ari dela azaldu dio HITZARI izen bera daraman Alegiako osabak. «Paco errugabea dela argi ikusten ari da, laster kalean izatea nahiko genuke», adierazi zuen.

«Barkamen eskaerarena albiste garrantzitsua izan da guretzat, baina ez dugu soilik bizia barka diezaioten nahi», azaldu zuen Paco Larrañagaren osabak, eta «atsekabe handia izango litzateke betiko kartzela zigorra aplikatzea, errugabea baita eta aske behar duelako egon», esan zuen. Halaber, beste bide batzuei ekitea erabaki dutela ere azaldu zuen, eta horien artean NBEko Giza Eskubideen Departamentura joateko duten asmoaren berri eman zuen.

Bestalde, bai erakundeen aldetik eta baita norbanakoen aldetik jaso duten laguntza eskertu zuen, horien artean www.pacolarranaga.com helbidean 130.000 lagun baino gehiagok sinatu dutela azpimarratuz.

ALBIZTUR ▶ GIZARTEA

Herriko gabezien inguruan jardun dira

40 lagun aritu ziren; harrobia eta gehiegizko abiadura dira lehentasunezko gaiak



Herriar ugari aritu ziren herriko gabezien inguruan solasean. HITZA

ERREDAKZIOA

Ostiral iluntzean Albizturko udaletxeko batzar aretoan egin zen herri bileran ia 40 herritar bildu ziren, herriko gabeziei buruz hitz egiteko.

Lehendabizi, Agenda 21 prozesuaren barnean osatu den diagnostikoaren lehen zirraborroaren berri eman zitzaion herritarrei eta hauek, lehenengo unetik aprobetxatu zuten bere iritzia emateko aukera. Ondoren, hiru taldeetan banatuta lan egin zuten; lehenengo taldeak biztanleria eta etxebizitza eta jarduera ekonomikoaren gaiak landu zituen; bigarrenak hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak eta kultura, kirola, aisia

eta zerbitzuak; eta hirugarrenak, berriz, mugikortasuna eta herri giroa, parte-hartzea eta etorkizuneko herria izan zuten mintzagai.

Zenbait gaitan herritarren arteko adostasuna nabaria izan zen eta harrobiaren ez-tandak eta herriguneari autoden diagnostikoaren lehen zirraborroaren berri eman zitzaion herritarrek lehentasunez landu beharrekoak ikusten dituzten gaietako bi.

Herritarrek lasai hitz egiteko aukera izan zuten eta lana bukatu eta gero ere, solasean jarraitu zuten pintxo batzuk janez. Halaber, udazkenean, etorkizunerako herrirako planena osatzen hasiko da Udala eta orduan ere herritarrek izango dute zer esana.

IBARRA ▶

Haurren eta gaztetxoek Koadrila Eguna

Aurtengo San Bartolometan, abuztuaren 23an, haurren eta gaztetxoek Koadrila Eguna antolatu dute. Hainbat ekitaldiren artean, eguerdian, 14:30ean, koadrilen bazkaria egingo dute. Bazkarira joan nahi dutenek txartela 7 eurotan herriko Txumitxa, Danon Txokoa, Zubiurre eta Sendi Ekintza tabernetan lortu ahal izango dute. Egun horretarako koadrilen kamisetak ere 6 eurotan salgai jarriko dira; kamiseta eskuratu nahi dutenek, taberna horietan jarriko diren zerrendatan izena eman beharko dute.

BERASTEGI ▶

Podologoaren bisita izango da larunbatean

Larunbatean uztailearen 30ean izango da podologoaren bisita. Gaztainondo elkarteak eman beharko dute izena interesatuek.

IBARRA ▶

Sendi Ekintzako giltza jasotzeko azken egunak

Sendi Ekintzak oraindik sagardotegiko giltzak jaso ez dituztenei jakinarazi nahi die gaur eta bihar, sagardotegian bertan egin dezaketela, 19:00etatik 21:00etara. Giltza berria 15 euro ordaindu beharko da. Bestalde, aurrerantzean bazkide berriak egiteko lehendakariarekin jarri beharko da harremanetan, 635 75 70 48 telefono zenbakian.

IBARRA ▶

Jaietako danborradako entseguak

San Bartolome jaietako danborradetarako laugarren entseguak egingo dituzte gaur Belabieta kiroldegian. Gaztetxoak ariko dira lehendabizi 20:00etan hasita, eta ondoren helduen txanda izango da 21:00ak aldera hasiko direlarik. Parte-hartzaileei gogorazten zaie gutxienez bi entsegutara joan beharko dela danborradan atera ahal izateko.

ALEGIA ▶ KIROLAK

Xantoxen omenezkoan gorriak garaile

I. Terradillos ▶ Xantoxen omenezko XXXVIII. Gaztetxoaren arteko Txapelketa jokatu zen, Alegiako jaietan. Finalean, 5-2 irabazi zuen Beñat Zabala, Iñaki Altuna, Joan Salegi, Manex Zubeldia, Eneko Arnedo, Mikel Oiarbide eta Amaia taldeak —argazkian behean—. Xiker Renobalesek, Beñat Diezek, Beñat Urretabizkaiak, Joseba Arrospidek, Iñigo Ormazabalak, Iñaki Arandiak eta Alasne Jauregi osaturiko taldearen aurka. HITZA



ARESO ▶ EUSKAL HERRIKO SOKATIRA TXAPELKETA

Bereak eta bi emanda, hortxe hortxe

560 kiloko 3. eta azken jardunaldia, larunbatean jokatuko dute, Laukizen

JAIONE ASTIBIA

Asteburu benetan gogorra izan du Areso sokatira taldeak, igaro berri den hau: Euskal Herriko Lurgaineko Sokatira Txapelketan, 600 eta 640 kiloko finalak jokatu dira, larunbata eta igandean, bi egun jarraietan, eta beren hitzetan «aspaldi ikusi diren finalik gogorrenak» jokatu dituztela aitatzeko da, irabazleak irabazle.

600 kiloko finala larunbatean jokatu zuten, Azpeitin. Gaztedi A-k irabazi zuen. «Baina edozeinek irabazi gentzakeen», zioten Aresoko tiratzaileek, «oso tiraldi luzeak egin genituen guztiok. Oso lehia gogorra izan zen, denok geronak ematera joan ginene», aitatu zuten, eta lehiakortasun hori are nabarmenago agertu omen zen, batez ere Nuarbe, Gaztedi A eta Aresok berak elkarren aurka egin zituzten tiraldietan. Aresori dagokionez, goiherri-tarrei eta Gaztedi B-koei irabazi egin zien; Nuarberekin eta Gaztedi A-rekin berdin, Mutrikurekin, zuzenean deskalifikatu. Halaxe azaldu zuten aresorrek: «Aurreneko tiraldia Gaztedi A-rekin egokitu zitzaizgun, azkenerako berdin gelditu baginenez ere, 2. soka ez zen oso 'garbia' izan, haiek falta asko egin zituzten arren ez baitzizkieten adierazi, eta ez ginen konforme gelditu», azaldu zuten. Bestalde, Mutrikurekin izandako tiraldian epaileek hartutako erabakiarekin «nahikoa amorrazita» gelditu omen ziren. Izan ere, aurreneko soka irabazita izanik, 2. ean ere

bide berean zihoazela, aurkariak ezinaren ezinez, «soka erdia baino gehiago lurrean etzanda jartzen ziren, alboko epaileak markatu arren, erdi-koak ez zuenez egiten, protesta egin genuen. Zuzenean deskalifikatu egin gintuzten». Okerreko erabakia izan zela zioten: «Irabazten joaki, besteak egin faltak eta gu deskalifikatu». Bi gertakari horiengatik izan ez balitz, «Nuarberen aurretik geldituko ginene, 2.», zioten.

Biharamonean, berriz, 640-tan, «askoz ere gogorrago egin zitzaizgun», zioten: «bezperako egurra soinetan genuen, taldean aldaketa bakarra eginda kilotan askoz gutxiago ginene. Baina txapela ez dugu hain bertan izan sekulan», zioten, Nuarbe eta Gaztedi A-rekin batera berdinketa hausteko ligaska jokatu behar izan zuten eta. Azkenik, Nuarbe garaile, Areso hurrena.

«Gazi-goza», halaxeko gorputzaldia gelditu omen zaio Aresori ondorio gisa: «Baina lehia bizian, ikusi eta erakutsi dugu geronak ematen ditugula», zioten, konformatuz.

Txapelketarekin bukatzeko, 560-ko 3. jardunaldia dute larunbatean, Laukizen, «daz txapela jantzi genuen zelaia» oroi-tu zuten. Aurtengoan, Goiherri A-ri txapela kentzea oso zail dago, «gehienez 4. egin beharoko bailuke eta hori nekez gertatuko da», zioten. Bestela, taldeak, asteburuko jipoiaren eraginez gerrietako erresuminak eta nekeak izanagatik ere, prestatzen dihardu eta ez omen du amorekin emanen.

GIZARTEA ▶

Irriterapia tailerra ere ez da eginen

Gaur hasi eta aste osorako iragarrita zegoen irriterapia tailerra ere ez omen da eginen azkenean, Oinarrizko Gizarte Zerbitzutik jakitera eman zutenenez, «inork izenik eman ez duelako». Zerbitzu horretako Prebentzio Programaren eskutik, Gozamenez egitarauaren baitan, lehengo astean egitekoa zen sexualitate tailerrarekin batera zen egitekoa irriterapiaren tailerra ere. «Goizuetako tailerrak egiten ari dira, baina Leitzaldean ez da inor txo animatu», zioten, «agian, han antolatze-ko garaian ere gazteek parte hartu zutelako», argituz batera. Dena den, irailerako ere badituzte beste tailer batzuk iragarrita, baina horretan sartu baino lehen «gazteekin landuko ditugu», zioten arduradunek.

LEITZA ▶

Santa Krutzen iaz baino jende gutxiago izan da

Herenegun, Santiago Eguna, egin zuten Leitzako Jubilatuta Elkarteak urteroko Santa Krutzeko erromeria. Antolatuzaileen esanetan, ordea, aurreko urteetan baino «jende gutxiago» bertaratu omen zen, «akaso sega txapelketa zela eta», zioten. Kontuak kontu, joan zirenak «ederki» ibili omen ziren, eguraldia lagun izan zutela: ordu bateko meza entzun eta ordurako prest zeuden mahaletan, norberak eramandako bazkaria jan omen zuten, elkar-tekoek eraman ohi duten «flan eta gazta, kafea eta kopax», tarteko. «Tokadiskoaren soinuan dantzan, musean, domoan...», eguraldi ederrarekin gainera, arratsalde-pasa umoretsua egin omen zuten bildu ziren guz-tiek.

LEITZA ▶ IGERIKETA

Haur igeriketaren bilera egin dute asteburuan

Bero sargoriari, uretan kirol eginez eta aldi berean jostatuz egin diote aurre umee



Adinaren arabera, luzera desberdinak egin zituzten. J. ASTIBIA



Parte-hartzaile guztiak arratsaldekoa irabazi zuten. J. ASTIBIA

J. ASTIBIA

Larunbat arratsaldean egin zuten Haur Igeriketaren XVIII. Bilera igerilekuan, 12 urte arteko 45 gaztetxoren parte hartzearekin. Kirola eginez, jostaketetan parte hartuz, eguraldi sargoriari putzuan sartuta aurre egin zieten.

Adinaren arabera, ttikienek 4 urte zituzten, luzera desberdinak egin zituzten uretan: 10 urte artekoek joanera, hala ere bazituen 25 metro, eta gainerakoek, joan-etorria; adin-

ka ateraz, *crowl* eran ez ezik, bizkarrez ere aritu ziren: «oso estilo politoko igerilariak ikusi dira, urtean zehar prestatzen direnei nabari zaie txukuntasuna», zioten mahaian.

Uretako jokoen ondoren, guztiak jaso zuten saria. Izan ere Denok bat guraso elkartek arratsaldekoa banatu baitzieten guztiak, baita opariak ere, kamisetak eta baloiak.

Bilera hau diruz lagundu zuten herriko denda eta enpresa ttikiak «eskerrak» eman zituzten.

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik



ESKERTZA ▶

JOXE ARISTI GARMENDIA

jaun hil berriaren senideen partetik, eskerrak samin agurra bidali zenuten eta hileta elizkizunetara etorri zineten guztiok.

Tolosa, 2005eko uztailaren 27a



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. AHTren aurkako akanpada Langurren: 09:30ean mendi marxa Aldabazahar baserrira eta Intxurreko kastroa; 14:00etan bazkaria; 16:30ean bideo-hitzaldia: Jaizkibelgo superportuaz; 19:00etan *Mordisco del lobo* liburuaren aurkezpena; 21:00etan afaria, bilera eta Garboten kantu saioa.
Aitzo. San Inaziotako ostiraleko zikiro jaterako txartelak salgai daude Arandia jatetxean.
Anoeta. *Ali* bideo emanaldia eskainiko dute Gaztetxean 22:30ean.
Ibarra. Sendi Ekintzak jakinarazten die bazkideei sagardotegiko giltzak bihar eta etzi jaso daitezkeela bertan 19:00etatik 21:00etara 15 eurotan.
Ikaztegieta. Jaietako herri afaria abuztuaren 6an izango da. Izen-ematea, Toki alai tabernan igandea arte.
Tolosa. Haur Eskolako afari-merienda bihar 20:00etan. Izen-ematea, bertan. Gaur da azken eguna.
Tolosa. Euskal selekzioaren aldeko Kostako Itzulia txirindulaz antolatuta du Esait-ek larunbaterako. Triangulotik abiatuko dira 09:00etan. Bazkarirako izen-ematea, Txiki tabernan, 15 eurotan.

ERAKUSKETAK

Alegia. Fernando Rojo eta Izarne Garmendiaren argazkiak. Jubilatuen taberna.
Hernialde. Pepi Arruti. Pinturak. Herriko ostataua.
Tolosa. Alejandro Gonzalez. Pinturak. Lanbroa taberna.
Tolosa. Xabier Galiza. Pinturak. Poxpolin denda.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
 Leitza. Larraia M.I. Elbarren 52. 112.
 Tolosa. Morant, R. Zabalarreta 1. 943 67 38 49.

IRRATIA

Txolarre (FM 107, FM 101)
 11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa: agenda, eguraldia, HITZA, lehiaketa...
 19:00. Errepikapena.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Kale izenen txartel berriak

TOLOSA ▶ Atzo hasi ziren jartzen Alde Zaharreko kaleetan errotuluak; diseinu berria dute eta Alde Zaharraren irudia hobetu nahi dute



Alde Zaharreko kaleetako plaka berri guztiak —50 dira— ordenatuta, jartzen hasteko prest. J.SAIZAR



Atzo arratsaldean jarri zuten lehen txartela, Andre Mari kalekoa. J.SAIZAR

JOXEMI SAIZAR

Aspaldidanik zegoen asmoa atzo arratsaldean hasi zen gauzatzen: Alde Zaharreko eta Euskal Herria plaza inguruko kale eta plazaren izena daramaten errotulu berriak jartzea.

Guztira 50 txartel dira, euskaraz idatzita, Euskaltzaindiak zehaztutako irizpideak kon-tuan izanik. Udal Toponimia Batzordeak erabakita —Andre Mari kalea, Andre Mari plaza, Andre Mariaren Bihotzaren plaza dira izen berriak—. Diseinua berriz, Zut enpresak egin du, Triangulo plazan eta Korazonisten plazan jarrita dauden panel informatiboaren diseinua jarriatuz: Tolosako kolore urdina eta Alde Zaharreko logotipoarekin, tradizioa eta berrikuntza uztartuz.

Errotuluaren helburu nagusia Alde Zaharreko eraberritze prozesuaren barruan, haren irudia hobetzea da. Instalakuntza eta diseinua Alde Zaharreko Batzorde Mistoan onartu dira, beraz, Igarondo eta Alde Zaharra Dendak merkataritza elkartearen eta Alde Zaharreko bizilagunen elkartearen onepena dute.

Jarduera honek Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Sailaren eskutik jaso ditu diru laguntzak, merkataritza berzpizteko PERCO esparru programaren barruan.

Txartelak jartzeko lana gaur bukatzea espero dute. Hemen-dik aurrera kale izenak txukun-txukun jarrita edukiko ditugu, inor ez galtzeko herrian. Noizko Tolosako beste auzo eta kaleetan?

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Julen (Anoeta).
 Gaur 6 urte.

Urte askoan txapela kaskoan!



ZORIONAK
 Bihotz-bihotzez. Ondu ospatu zuen eguna eta mazu pottolo pille aitabo eta amabo. Animo eta eutsi goazi! Zuen sorgintxo Ekibe.

HITZA, zorion agurren
 Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, tartea ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:
HITZAren egoitzara:
 Araba etorbidea, 5 behea - **TOLOSA**
 Udaletxeko bulegoa - **LEITZA**
Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!